

## ZILARREZKO LAUBURUA JASOTZEAN

*Bilbo, 1978 - III - 11*

*Fr. L. Villasante*

Jaunak:

Hitzerdi bat besterik ez. Badira une batzuk eta egoera batzuk, zeinetan, barneko zirrara adierazteko, isilik egoteak gehiago balio baitu hitzegiteak baino. Baina beste aldetik ezin da isilik egon. Une hoietako bat da enetzat hau.

Badakit "Eskerrik asko" esate hutsa hitz hotz bat esatea dela. Baina nahi eta nahi ez esan beharrekoa da hala ere. Euskaltzaindiaren izenean eta Liburu Zurian modu batera zein bestera parte hartu dutenen izenean eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiot Zaballa jaunari eta "Galeria del Libro" delakoari Zilarrezko Lauburuaren sari eder eta sotil hunekin saristatu nahi izan duelako Euskararen Liburu Zuria eta denbora berean Euskaltzaindiari omenaldia egin ere bai.

Beste behin esan nuena bir-esango dut. Sari hau eta omenaldi hau onartzen ditut ez guri eginak balira bezala, baikik eta liburu hunek eta Euskaltzaindiak errepresentatzen dutenaren izenean. Euskararen izenean, alegia. Ongi konturatzan bainaiz horregatik dela saria, eta halaxe onartzen dut.

Euskararen kezkak sortu zuen Euskaltzaindia, hark bizi du, hark mugiarazten du. Eta euskararen ardura horrek berorrek eragin du Euskararen Liburu Zuria ere.

Entzun ditugun hitzaldiotan berririk aski esan da bai *Liburu Zuriari* buruz eta bai Euskaltzaindiari buruz ere. Ez noa, bada, gehiago esatera.

Hauxe bakar-bakarrik, bukatzeko:

Sari hunen pozarekin adore berri batez lotuko garela aurrerantzean euskararen aldeko lanari.

Eta besterik ez. Mila esker, eta egun denoi!